

EKAINAK 6

Espainiako
Legebiltzarrerako
hauteskundeak

PSE-EEK eta PPk gora egin dute UA eta abstentzioari lekua kenduta

Alderdi abertzaleek bototan zertxobait behera egin dute Araban

Arabako boto espainolista esnatu egin zen igandean. Aurreko hauteskundeetan lasai asko etxean geratu zirenek beren botoak Espainiako Gobernua erabakitzeko baliagarriak zirela pentsatu zuten eta nabaritu zen. Alderdi abertzaleek, bitartean, zertxobait behera egin zuten botoei dagokienez.

FÉLIX IRIARTE / GASTEIZ



Alderdi estatalistek beren benetako indarra erakutsi zuten igandean. Espainiako jarraitzaileak, abstentzioa murriztu egin zen aurreko hauteskundeekin alderatuta, eta hori mesedegarri izan zen batez ere PSE-EE eta PPrentzako. Gainera CDS eta UAri milaka boto kendu zizkieten bien artean. Ondorioa: bien gorakada nabarmena.

1989. urteko hauteskundeetako abstentzioa % 33,38koa izan zen; igandean, berriz, % 28,55koa. Erroldan orduan baino 12.000 pertsona gehiago zeuden, baina guztira, 18.423 pertsona gehiago hurbildu ziren igandean botoa ematera. Duela lau urteko hauteskundeetan alderdi espainolisten artean 74.000 boto lortu zituzten. Herenegun, ia 16.000 boto gehiago. EAJ, EA eta HBren artean 50.952 boto lortu zituzten 1989. urtean. Orain 49.943, mila gutxiago. PSE-EEK bost mila boto irabazi ditu, batzuk EETik etorritakoak, 11.873 baitzituen. PPk 11.000 boto gehiago lortu ditu, eta CDSk 8.000 galdu ditu. Hauteskunde haietan UA ez zen aurkeztu, eta herenegun 16.000 lortu zituen.

Azken foru eta udal hauteskundeekin alderatuz gero, alderdi abertzaleek bost mila boto galdu dituzte, batez ere EAJk, EAJ 1.500 utzi baititu bidean, eta HBk 1.000 irabazi baititu. Orduan alderdi espainolisten boto asko etxean geratu ziren, 113.520 pertsonak baino ez baitzuten bozkatu. Herenegun, aldiz, 44.050 pertsona gehiagok eman zuten botoa. Eta gehienak, 39.000 boto inguru alderdi espainolistentzat izan ziren.

PP-REN EMAITZIK HOBERENAK PSE-EE eta PP izan dira garaile nagusiak. Sozialistek bi diputatu lortu dituzte eta

HAUTESKUNDEEN EMAITZAK

ARABA

	1989 hautes. orokorrak			1991 hautes. foralak			1993 hautes. orokorrak		
	BOTOAK	%	DIP.	BOTOAK	%		BOTOAK	%	DIP.
EAJ	23.247	17,00	1	31.535	26,05		26.235	16,65	1
PSE-EE	35.723	26,15	2	28.080	18,27		40.825	25,91	2
HB	16.015	11,71	-	13.882	11,48		14.670	9,31	-
EA-EUE	11.689	8,55	-	10.566	8,74		9.038	5,74	-
EE	11.873	8,68	-	5.503	4,55		-	-	-
PP	19.427	14,20	1	10.725	8,87		30.547	19,39	1
UA	-	-	-	22.342	18,48		16.594	10,53	-
IU	4.719	3,08	-	1.329	1,1		10.642	6,9	-
Abst.	%33,38			%42,2			%28,55		

J. APEZTEGIA

✓ Araban, EAJ, EA eta HBren artean 50.952 boto lortu zituzten 1989. urtean. Orain 49.943, mila gutxiago eskuratu dituzte.

PPk zeukanari eutsi dio, baina oraingoan UA izan du etsai, aurreko hauteskundeetan gertatu ez zena. Sozialistena ez da betidanik emaitzarik onena izan, baina bai bigarrena. 1982. urtean bakarrik lortu zituen boto gehiago.

PSE-EEkoek Gasteiz eta Aiaran finkatu dute garaipena. Hiriburuan 33.095 boto lortu dituzte eta Laudion 3.017. Amurrión EAJren atzetik geratu dira baina botoak bikoiztu egin dituzte udal

hauteskundeekin alderatuta.

PPk gora egin du nabarmen Araba osoan. Gasteizen bigarrenak izan dira UA eta EAJren aurretik. Jeltzaleek baino 7.400 boto gehiago lortu dituzte Gasteizen, 23.669 boto guztira. Udal hauteskundeetan 7.651 boto lortu zituen PPk. Aiara aldean ere gora egin dute nabarmen. Laudion HBren atzetik geratu dira, baina oso gertu. Gainera Biasteri eta Aramiñonen irabazi egin dute.

PPk lortu dituen emaitzik hoberenak izan dira igandekoak.

UA itxaropentsu zegoen igandearen aurretik, diputatu bat lortzea espero baitzuten alderdi foralistako buruzagiek. Asmoak, aldiz, ustelak gertatu dira. Arabako laugarren alderdia bilakatu da UA, eta gainera, ez du inon irabazi. Ezta Biasterin ere, nahiz eta hango alkatea UAkoa den. UAK 16.594 boto lortu ditu, udal hauteskundeetan baino bost mila boto gutxiago. Boto gehienak Gasteizen eskuratu ditu (14.240), eta Laudion 315 bakarrik izan ditu. PP eta PSOEren arteko lehia kaltegarria izan da Pablo Mosqueraren alderdiarentzat.

ALDERDI ABERTZALEEN JARRERA EAJk 3.000 boto irabazi ditu 1898. urteko

hauteskundeekin alderatuz gero. Baina Foru Aldundirakoekin parekatuz, aldiz, 5.000 galdu ditu. Gasteizen ez du PSE-EEren erdia eskuratu (15.986 boto), eta hirugarren alderdia izan da, Unidad Alavesatik oso gertu. Laudion bigarrena da EAJ PSE-EEren atzetik, Agurainen bezala, eta Amurrión irabaztea lortu du oso gutxiatik izan bada ere. Emilio Olabarria berriro eseriko da Madrileko Diputatuen Kongresuan, eta berriro Arabako interesak defenditzen duen bakarra izango dela adieraziko du, gainontzeko diputatuak «estafalistak» direlako.

Herri Batasunak behera egin du pixka bat, 1.924 boto galdu baititu Araban. Hala ere, udal hauteskundeetan baino mila boto gehiago lortu ditu oraingoan. HBk gora egin du Gasteizen, baina aldiz, galdu egin du gainontzeko herrietan. Laudion hirugarren alderdia da dagoeneko, eta botoak galdu egin ditu, Amurrión bezala.

Eusko Alkartasunak eta Euskal Eskerrak osatutako koalizioak ez du diputaturik lortu iragarrita zegoenez. Koalizioak boto baliagarriaren ondorioa jasan du. Hala ere, Gasteizen udal hauteskundeetan baino ia mila boto gehiago lortu dituzte. Baina hiriburuan irabazitakoa herrietan galdu dute. Agurainen eta Amurrión Eusko Alkartasunako alkatea dute, baina boto galera izugarria izan da. Amurrión 1.000 boto galdu dituzte udal hauteskundeekin alderatuta, eta hirugarren alderdia da. Agurainen beste hainbeste gertatu zaie, 600 boto galdu eta gero hirugarren geratu baitira.

Ordezkaritzarik lortu ez dutenen artean Izquierda Unidak gora egin du nabarmen. Sei mila boto irabazi ditu duela lau urteko emaitzekin alderatuta, eta guztira 10.000 boto lortu dituzte. Boto asko, antza, EETik heldu zaie. CDS alderdia hil-zorian zegoen, eta aurrikuspen guztiak baiezatu egin dira. Garai batean Araban indar politiko garrantzitsua izan zenak ez ditu oraingoan 2.000 boto eskuratu.



Arantxa Mendizabal, Luis Agiriano eta Javier Rojo.

OLALDE


ARABA

DIPUTATUAK

Luis Agiriano	(PSE-EE)
Arantxa Mendizabal	(PSE-EE)
Emilio Olabarria	(EAJ)
Marcelino Oreja	(PP)

SENADOREAK

Augusto Borderas	(PSE-EE)	37.652
Javier Rojo	(PSE-EE)	36.311
Estrella Rojo	(PSE-EE)	36.097
Ramon Rabanera	(PP)	28.667



Marcelino Oreja.

OLALDE